

TTAKUN (H)ERRENKA

Ho, ho, ho

ho! Pitxu azkenean ez da hil. Hil bai, baina medikuek berpiztu ere bai. Abokatuek orain ez dakite testamentua zer egin, indarrean dagoen, aplikatzerik baden, zer araudiren arau, jurisprudentziak horrelakoez zer dioen, aurrekaririk dagoen, Pitxuk berrestu beharko duen, berrilko denerako, testamentu zaharra, testamentu berria. Epaitegira eramatekotan ere omen daude.

Lucia eta Julia, haren alabak, hasiak ziren, Inaziok iradoki modura, aitarendako eresia bat osatzen. Zinezkoa zuten mina, aita hil berri zitzaielako; eta min zinezkoa dute orain ere aita berriz haiekin dutelako. Eresia zaharra ere, min zaharra, ez dakite zer egin. Pentsatu dute, C. S. Lewisen *Una pena en observación* eta Albert Caracoren *Post-mortem* irakurri dutelako akaso, hildakoarekiko pena beti dela egiazko bezain egoista, eta beti dela iraunkor bezain iragankorra: “eskatzan nuen itzul zedin bizitzara, baina harengan pentsatu gabe, niregatik”, “bera hil da, eta bizitzan gaudenoi bi irtenbide baino ez zaigu geratzen: geure burua ere su metara botatzea, Indiako alargunak behinola bezala, edo kea oraindik darien hondarrei bizkarra eman”. Baina ez dakite alaba zintzoek zer pentsatu berpiztuarekiko penaz, ez dakite, Inazio, zer idatziko.

Pitxu ez da hil eta hil bezperan esandakoaz damutzen hasi da, edo berpizteaz, orain etxez etxe, erakundez erakunde, zuloz zulo joan behar baitu oinordetzan legaturikoa atzera eskatzera. Hilik ez baina bizirik hagitz beharrezkoa zaiolako emandako guztia: Madonna, Dire Straits, Aviron Bayonnais, Niko Etxart, Idirin aingerutiarra...

* * *

Ho, ho. *Houston, we have a problem.* Ttakun honen egileak ez daki nola jarraitu aurrera. Zaila da ttakungintza gero! Gaurkoan ttakun baino herrenagoka dabil. Aukera polita eskaini dio Itxaro Bordak besteen lotsariak agerian uzteko, baina Pitxu nor den dokumentatu

JOSU SANTESTEBAN



Angel Erro



Mujika



Borda

behar izan du, eta arazoa, ahal bezala, konpondu du.

Ttakun honen egileak aitorten bat egin nahi du. Duela hamar urtetik baino ez da euskalduna. Hots, ez da euskalduna, edo ez da nahikoa euskalduna erreferente guztiak atzemateko. Bere buruari galde-tu dio Pitxuk zer utziko liokeen testamentuan. Oraintsu arte, esaterako, Filipe Bidart nor zen

ere ez zekien, aditza ere ez zuen zenbat denbora zeraman kartzelan. Hainbat harrituko da. Orain, berriz, jakin du –ez dago dena galduta, heziketa etengabea da–, egunkarietan adierazpenak irakurri ditu, astekari honetan ere haren aldeko omenaldien berri. Ez pentsa, Itxaro, Iparraldeko notizia izateagatik ez nekiela haien berri. Hegoaldeko hainbatekin ere gertatzen zait berdin.

Aldarrikatu gura nuke euskaldun berriaren autonomia estatutu bat, ez al ginen euskaldunak horren berezi zaleak? Euskalduntasun biribila osatzeko bidean lehen geltoki lasaia, zeinaren arabera *giri* nortasuna aitortuko zaigun, nazionalitate bikoitza, edo ikusiko dugu zer, bi ergatibo orduko huts egiteko eskubidea, ama hizkuntzako iruditeria gurekin –behin-behinekoan bederen– ekartzeko eskumena, hitz eginez baino idatziz trebeagoa izateagatik diskriminatua ez izatekoa. Ama hizkuntza ere ez dudan alemaneraz, bestela, zergatik daukat, euskaraz ez dudan eskubidea alemana ez izatekoa?

* * *



Ttakun honen egileak aitorten bat egin nahi du. Duela hamar urtetik baino ez da euskalduna. (...) Oraintsu arte, esaterako, Filipe Bidart nor zen ere ez zekien, aditza ere ez zuen zenbat denbora zeraman kartzelan. (...) Ez pentsa, Itxaro, Iparraldeko notizia izateagatik ez nekiela haien berri.



Ho, ho, ho! (*and a bottle of rum*). Inazio Mujikak arretaz irakurri du ttakun iritsi berria. Zeri lotu darabil buruan, Itxaroren proposamen iradokitzaileari, Angelen saio huts egindakoari, hari berri bat hasi, hiru gauzak batera egin. Aste osoa du horretan pentsatzeko. Ttakungintza zaila da, gero. Tximeleta efektuaz oroitu da, norbait botatako zerbaiten ondorio espero gabekoez, baita norbait hori desagertu denean ere. Ondorio espero gabeak. Seme-alabak direla. Direla idazkiak. Aste osoa du horretan pentsatzeko. n